



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 31

21. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko. Carlos García Adanero jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ematen dituen zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrianak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAN erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Agoitz-Irunberri NA 150 errepedeko 37. kilometro-puntuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkurarako, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Expansión ekonomia-egunkariak 2017ko urtarrilaren 24an argitaratutako informazio baten arabera, Nafarroa izan da, soilik Kataluniaren atzetik, enpresa-deslokalizazioak gehien kaltetutako erkidegoa. Foru erkidegoak 76 enpresa galdu ditu iturri horren arabera, zeinak orobat gehitzen baitu

horren arrazoia izan litekeela Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dioten lau alderdiek zerga-presioa areagotu izana.

Argitaratutakoaren arabera, beraz, ematen du UPN ez zebilela oker ohartarazten zuenean neurri ekonomiko eta fiskalek deslokalizazio-efektua izan zezaketela foru erkidegoan kokatutako enpresetan, eta enpresa-bilakaerarako baldintza hobeak eskaintzen dituzten beste erkidego batzuetara alde egin zezaketela.

Bere ratioak Europako erregiorik garatuenekin konparatetik Extremaduraren parean kokatzera igaro da Nafarroa, iaz enplegu gutxien sortu duten erkidegoak baitira biak ala biak.

Administrazioak ez du enplegurik sortzen, baina enpresek enplegua sortzeko beharrezkoak diren baldintzak sorrarazteko aukera dauka; hala ere, abiarazitako bidea ez da zuzena, ezagutu diren datu horiek ikusita.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditea xede dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familia-enpresen tributazioa alda dezan, enpresa-jarduerari atxikitako ondareari dagokionez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ematen dituen zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ematen dituen zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2017ko otsailaren 2ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako egungo eztabaida politikoa dagoen faktore bat da titulartasun publikoko zerbitzuen zuzeneko kudeaketaren publikotzea. Izan ere, zenbait udalek hori bera egin dute. Halere, sarri askotan ahaztu egiten da botere publikoek daukaten erantzukizuna lizitatzen dituzten zerbitzuen kudeaketaren kalitatean. Administrazio publikoak, austeritate politika publikoen kariatara, murrizketak egiten ditu lizitazio publikoetan, halako

moduan non azpijana egiten baitie kasuan kasuko sektoreko hitzarmenetan ezarritako lan baldintzei.

Jada 2015ean, Kontuen Ganberak fiskalizatu egin zuen garbiketa zerbitzuen 2010etik 2014ra bitarteko kontratazio publikoa. Fiskalizazio horrek agerian utzi zuen Administrazioak baldintza bidegabeak ezartzen zituela, hainbestekoak non ez baitzen bermatzen zerbitzu horien kalitatea, lan baldintzei eta zerbitzu-emateari dagokienez. Hori dela-eta, Kontuen Ganberak besteak beste gomendatu zuen “behar diren baliabideak jartzea kontrolatze aldera baldintza-orrietan jasotako baldintzak betetzen direla eta zerbitzua emateari buruz esleipen-hartzaileek egindako eskaintzak betetzen direla” Bai eta “kasu guztietan, garbiketa-zerbitzua gainbegiratzen diharduten arduradun guztiei kontratua arautzen duten baldintza-orriak eta esleipen-hartzailearen eskaintza teknikoa eskuratzea, zerbitzuaren kontrola hobetze aldera”.

Hori dela eta, sozialisten parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ematen dituen zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan. Bereziki, garbiketa eta mantentze zerbitzuen. Txosten horretan, urtea joan urtea etorri izandako lizitazio-prezioen azterlan bat jasoko da, bai eta Kontuen Ganberaren gomendio horiei jarraikiz ezarritako neurriak ere.

Txosten hori hiru hilabeteko epean eginen da, eta Parlamentuari igorriko zaio, azter dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Eleduna: María Chivite Navascués

F saila:
GALDERAK

Galdera, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrizanak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrizanak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak parlamentu-galdera bat egin du (9-16/PES-00356), orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrizanak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2016ko urriaren 13ko idazkiaren bitartez, parlamentariak honako idatzizko galdera egin du:

“Orain dela gutxi eskatu genuen errenta bermatuaren 2015erako aurrekontuaren zenbatespena egiteko (2017. urteari buruz dela suposatzen dugu), eta lege proiektuaren memoria ekonomikoan aurreikusitako igoeraren berri emanez erantzun ziguten. Berez jakin nahi duguna da, zenbateko zehatz batekin, zein den orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren eta errenta bermatuaren proiektua onesten denean errenta bermatua deituko denaren 2017ko beharrizak guztiak estaltzeko gastu-aurrekontu orokorraren zenbatespena.”

2017rako Nafarroako Aurrekontuei buruzko proiektuan “Errenta Bermatua” izeneko 9000002 91100 4809 231500 kontu-sailak 87.961.852,00 euro dauzka.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazioa eskatu du Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruz (PES-00357). Hona Garapen Ekonomikoko kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren martxoaren 13ko 71/2006 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuari atxiki zitzaizkion Xabierko guneko turistikoko ondasun eta azpiegiturak.

Foru agindu horretan, halaber, ezartzen da departamentu hartzailea arduratuko dela berdeguenean, turismo-eremuko eraikin eta instalazioen eta Xabier herriaren ur-horniduraren kudeaketaz, bai eta kafetegi-tabernaren eta turismo-eremuko gainerako lokalen errentamendu kontratuaren kudeaketaz ere.

Aurreko lerrokadan ezarritako betebeharretatik batzuk eraginkortasunez betetzeak hainbat lan eskatzen zituen, zeinak orduko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuari enkargatu bazitzaizkion ere, udalen eskumen-esparruaren zati bat baitziren toki araubideari buruzko araudia-aren arabera (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 29. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b) eta c) eta 26.1.a) artikulua).

Garbiketa- eta mantentze-zerbitzua Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra SA sozietate publikoari urtetan esleitu ondoren, 2014ko maiatzaren 12an Kulturako, Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen Xabierko Udalarekin, berak egin zitzan ordura arte enpresa publikoak egiten zituen jarduketak, urtean 36.000 euro ordaintzearen truke. Hitzarmena 2015erako luzatu zen.

2016ko hasieran espediente berrikusita, honako hau ikusi zen:

– Alde batetik, lehenbizi enkarguaren esparruan eta gero hitzarmenaren esparruan mantendu ohi ziren lursailetatik bi katastroan Xabierko Udalaren izenean ageri ziren. Egoera horrek eskatzen zuen, horrenbestez, bi lursailen egiazko egorari buruzko ikerketa bat egitea eta, kasua bazen, behar zen zuzenketa egitea.

Lursail horien egoeraren zuzenketa eta, horrenbestez, haien atxikipenarena, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren abuztuaren 17ko 112/2016 Foru Aginduaren bitartez egin zen.

– Bestetik, jo zen Xabierko Udalari enkargatutako zerbitzuak ez zetozeela bat, funtsean, lankidetzaren hitzarmen baten figurarekin, baizik eta kontratu batenarekin. Hitzarmenaren bitartez, Udalari enkargatzen zitzaion mantentze-lan batzuk egin zitzan eta, horren truke, horrek sortzen zituen gastuak ordaintzen zitzaizkion, tartean bi aldeen artean bestelako lankidetzaren motarik gertatu gabe.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, mantentze-lanak, gaur egun, Turismoko eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak egiten ditu.

Gure ustez, Xabierko gazteluaren ingurunearen mantentzeak, hobekuntzarako nolabaiteko tarte bat badu ere, guztiz zuzen eta egokia da. Aldi honetan guztian izan diren bisitarietatik bakarrik ere ez du kexarik azaldu.

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an

Garapen Ekonomikoko kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Óscar Arizcuren Pola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Óscar Arizcuren Pola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bruselako ordezkaritzaren web-orria ingelesera

itzultzeari buruz (9-16/PES-00366). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritzak baliabideen zuzkidura zorrotza du, gobernu honi babesa ematen dioten lau formazioek izenpetutako programa akordioan erabaki zen bezala.

Horrenbestez, ordezkaritzak ataria ingelesera itzuliko du horretarako baliabideak jarri ahal diren bezain pronto.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak informazioa eskatu du Etxebizitzaren alorrean herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenaren eragin ekonomikoari buruzko txostena eta parte-hartzeari buruzko txostena igortzeari buruz (9-16/PES-

00368). Nafarroako Gobernuak Eskubide Soziale-tako kontseilariak ohore du eskatutako informazioa eman eta honako hau ezagutzera ematea:

(1) Testu horren eragin ekonomikoaren balorazio-txostena lehenbailehen igortzea; izan ere, lau alderdien eledunak proposamena aintzat hartzea onetsi zen Osoko Bilkuran adierazi zuenez, foru lege proposamenaren testuarekin batera aurkeztua zen.

Lege proposamenek ez dute eskatzen eragin ekonomikoari buruzko txostenik egitea. Halakorik izatekotan, txostena aurkeztea ez dagokio Gobernuari, lege proposamena egiten duten parlamentutaldeei baizik.

Aurrekoa gorabehera, Gobernuak bere garaian erantsi dugun balorazio ekonomikoko txostena egin zuen.

(2) Herritarren parte-hartzeari buruzko txostena, zeina foru lege proposamena izapide-

tzera aurkeztu aurretik egina baitzen, Eskubide Sozialetako kontseilariaren arabera.

Aurreko arrazoi berarengatik, lege proposamenek ez dute eskatzen parte-hartzeari buruzko txostenen egitea. Halakorik izatekotan, txostena aurkeztea ez dagokio Gobernuari, lege proposamena egiten duten parlamentu-taldeei baizik.

Parlamentuan urriaren 13an egindako hitzaldian, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak ez zuen aipatu parte-hartzeari buruzko txostenen zegoenik, baizik eta "herritarren parte-hartze prozesu bizia".

Aipatu beharra dago gaur arte honako hauen ekarpenak jaso direla: ACP-Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarte, PAH-Hipotekak Ukitutakoen Plataformak, Garapen Ekonomikorako Departamen-

tua, Zaharberitze Bulegoak, Irache Kontsumitzaileen Elkarte, Nafarroako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofiziala, ACODIFNA-Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Nafarroako Elkarte Koordinatzailea), Gazteriaren Kontseilua eta VAIS programa (gizarteratzerako etxebizitzaren programa) kudeatzen duten entitateak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 15ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ägora sisteman).

Galdera, eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak galdera egin du eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruz eta erreformaren helburuak, zaharberitzei dagoenien babes daitezkeen jarduketan gutxienez muga 2.000 eurora jaistear buruz (9-16/ PES-00369). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ezagutzera ematen diona:

(1) Eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostua.

(a) Bizitegi-eraikin baten egitura- edo funtzio-egokitzapena, edo biak.

(b) Bizitegi-eraikin baten ingurutzailako obrak, energia-kontsumoa aurreztekoak.

(c) Araudi indardunari egokitzea uraren, gasaren, elektrizitatearen, antena kolektiboaren, suturen aurkako babesaren, aireztapenaren, zaraten eta saneamenduaren arloetan, eta eraikinari iraunkor-ki gehitutako obra-unitateen bidezko berokuntza-instalazioa.

(d) Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak lortzeko edo hobetzeko obrak.

(e) Irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko baldintzak lortzeko obrak.

Ondoren ematen ditugun datuak 2010eko urtarrilaren 1etik 2016ko urriaren 26ra arte behin-behineko kalifikatutako espedientei buruzkoak dira.

(b) eta (e) atalei dagozkienak zehaztasunez erantzun daitezke, zeren eta jabeen eta laguntza bereziei lotutakoen erkidegoek xede horietarako bideratutako espedienteak baitira.

Gainerako hiru atalak, (a), (c) eta (d) ezin dira bereiz kuantifikatu, zeren eta Zaharberitze Babestuko obra arruntek aldi berean hiru atal horietako alderdiak jaso ohi baitituzte, betiere proiektu teknikoetako aurrekontuetan bereizi gabe zein kontu-sail edo kontu-sail bakoitzeko zein zati dagokion horietako bakoitzari.

Esate baterako, (a), (c) eta (d) kontzeptuak biltzen dituen espediente batek adreilu huts bikoitzeko eraikitze lanetarako, morterozko emoka-

tzerako eta antzekoetarako kontu-sail bat izan dezake, baina kontu-sail horretan adierazitakoa azaleratik ezin da jakin zein zati dagokion atal bakoitzari ((a), (c) edo (d)).

Galderaren edukiari ahal den guztian hurbiltzeko, (b) eta (e) ataletako batez besteko datuak ematen ditugu. (a), (c) eta (d) ataletarako, berriz, gainerako espedienteen batez besteko datuak ematen ditugu; hau da, (b) eta (e) ataletan jaso ez direnenak.

Atala	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua	Babestu daitekeen guztizko aurrekontua	Etxebizitza bakoitzeko aurrekontua
(b)	92	1.606	24.533.449	15.276
(e)	1.044	12.933	149.972.165	11.596
(a), (c), (d)	8.153	15.088	281.599.666	18.664

(2) Erreformaren helburuak, zaharberitzeei dagokienez babes daitezkeen jarduketan gutxieneko muga 2.000 eurora jaistean: zer obra-mota hartuko dituzten 2.000 eurotik 6.000 eurora bitarteko espediente-mota hauek, zer ehunekotan, arestian azaldutako moten arabera.

Etxebizitza bakoitzeko gutxieneko kostua gutxitzek aukera emanen du egoera ekonomiko ahulagoan dauden herritarrek, beren etxebizitzan zaharberitze handia ezin egin dezaketenean, laguntza premiazkoenak laguntza publikoekin egin ahal ditzaten. Adibidez, leiho batzuk aldatu ahalko dituzte, iparraldeko fatxadakoak, nahiz eta leiho guztiak aldatzeko dirurik ez izan. Eta leiho guztiak ere aldatu ahalko dituzte.

Azaldutakoaren arabera, aukera ematen da zaharberitze babestuko espediente gehiago sor daitezen; izan ere, orain arte halakorik ez zen eginen, laguntzarik ez baitzegoen 6.000 euroko kopurura iritsi ezean. Bestalde, ez da eragozten, ez eta mugatzen ere, zaharberitze-espediente konplexuagoak edo aurrekontu babesgarri handiagoak aurkezteko aukera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-16-PES-00370). Haren bidez, jakin nahi du "Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer neurri hartuko dituen Nafarroako Ospitaleguneko, Tuterako eta Lizarrako osasun-langileei, bereziki larrialdi-zerbitzuetan, egindako eraso fisikoak areagotu izanaren aurrean". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

KANPOKO ERASOEN PREBENTZIOAREN ARLOKO JARDUKETEI BURUZKO TXOSTENA

1. Aurrekariak

Nafarroako Gobernuak, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 964/2008 Ebazpenaren bitartez, Lantokiko kanpoko erasoen aurkako prebentzio- eta jarduketa-plan orokorra onetsi zuen. Plan hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile guztiei aplikatu behar zaie.

Planak ezartzen ditu Nafarroako Gobernuak lan arriskuen prebentziorako hiru zerbitzuek kanpoko erasoen prebentzioaren arloan garatu behar dituzten eginkizunak, hain zuzen ere kanpoko indarkeria dela-eta lan arriskuko faktoreak deuseztatu, prebenitu eta kontrolatzera joko duten lan baldintzak sortzeko.

Honako honetan dautza garatu beharreko eginkizunak:

– Indarkeriazko gertakarien erregistroa eta ikerketa.

– Erabiltzaileen eta profesionalen arteko gatazkak ebazteko aholkularitza.

– Plana antolamendu-maila guztietan ezar dadin eta koordina dadin erraztea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (aurrerantzean O-NOZ), 964/2008 Ebazpenean esleitutako eginkizunei erantzuna emateko, honako jarduketa hauek egin ditu:

1. Kanpoko Erasoen arlorako Lantalde bat sortu du. Talde horrek honako hauen ordezkariak dauka: Administrazioa, prebentzioko ordezkariak eta Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko (aurrerantzean, LAPZ) langileak. Taldea da O-NOZeko kanpoko erasoeri aurre egiteko protokolo bat egiteaz arduratzen dena.


2. Istripuak eta gorabeherak jakinarazteko gal-detegia aldatu du, hartan kanpoko indarkeriazko gertakariei buruzko eremu berriak sartuz. Hartara, bide bera erabiltzen da kanpoko erasoak jakinarazteko eta istripuak/gorabeherak jakinarazteko, eta informazio-bilketa estandarizatu egiten da.

2. Kanpoko erasoen aurkako O-NOZen jarduketa-protokoloa

2009ko martxoaren 31n, O-NOZen Segurtasun eta Osasun Komitearen bilkuran, Kanpoko erasoen aurkako O-NOZen jarduketa-protokoloa onetsi zen. Protokolo horrek dakar Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esparruari egokitzea Nafarroako Gobernuaren Erasoen aurkako Plan Orokorra.

Protokoloak deskribatzen du zein jarduketa egin behar diren O-NOZi atxikitako langileei, lan egiten ari diren bitartean, gaixoek, erabiltzaileek, senideek eta laguntzaileek eraso egiten dietenean.

Protokoloko jarduketa orokorraren eskema ondoko irudian deskribatzen dena da:



3. Erasoen jakinarazpena eta erregistroa

Edozein gertakariren jakinarazpena eta geroko erregistroa (istripuak, gorabeherak edo erasoak) Lan Arriskuen Prebentziorako Planeko Gertakarien Jakinarazpenerako eta Ikerketarako Prozeduran jasotako prozesu baten bitartez egiten dira.

Jakinarazpena eta ikerketa galdetegi elektronikoko batean erregistratzen dira. Galdetegi hori Osasuneko Intranetean dago, eta nagusi hierarkikoak osatu beharko du. Galdetegi osatua bide telematikoz iristen da aldi berean LAPZra eta kasuko profesionalen zuzendaritzara.

Honako hauek dira galdetegian jasotzen diren datuak:

- Erasoak pairatutako pertsonaren filiazio pertsonala eta lanekoa.
- Erasoaren tokia, eguna eta deskribapena.
- Lesioak izan diren eta osasun-laguntza behar izan den.
- Langilearen alta edo aldi baterako ezintasuna.
- Gorabehera eragin duten arrazoiak (gorabeherari buruzko oinarritzko ikerketa).
- Berriz gerta ez dadin egin beharreko jarduketak.

Gainera, galdetegi horren bitartez, laguntza juridiko edo/eta psikologikoa eska daiteke langilearentzat. LAPZk biak kudeatzen ditu, eta laguntza juridiko edo/eta psikologikoa eskatzen den alde batera utzita, LAPZ harremanetan jartzen da erasoaren bat pairatu duten pertsona guztiekin.


Galdetegiaren analisiak ekar dezake LAPZk proposamen bat egitea, egiturazko, antolamenduzko edo/eta banakako neurri prebentiboak ezartzeko. Adibidez, aipa daiteke 2012an Foruzaingoarekin lankidetzatresna bat jarri dela abian, erasoaren historia duten gaixo programatuen kasuan haren lankidetzat eskatu ahal izateko.

Gainera, jasotako galdetegiaren analisiak aukera ematen du O-NOZen kanpoko indarkeriari buruzko arriskuen mapa egiteko. Urtero, O-NOZeko Segurtasun eta Osasun Komitearen barruan, aldira, indarkeriazko gertakari buruzko honako datu estatistiko hauek aurkezten dira:

- Arloa / Lantokia
- Lanbide-kategoria
- Pairatutako eraso mota
- LAPZk egindako jarduketak
 - Laguntza juridikoa
 - Babes psikologikoa
 - Laguntza juridikoa eta babes psikologikoa
 - LAPZk egindako jarraipena

Erasoen jakinarazpenei buruzko estatistika orokorrari dagokionez, 2015ean gorakada nabarmena gertatu zen, bereziki hitzezko erasoaren kasuan. Aipatu beharra dago estatistika jakinarazpenei buruzkoa dela, ez egiazki gertatutako erasoari buruzkoa, zeren eta normalean azpi-deklarazio bat egoten baita, bereziki hitzezkoetan eta gaixo psikiatrikoaren ospitaleratzearekin lotutakoetan. Langileak erasoaren jakinarazpena egitera bultzatzeko O-NOZek aurrera eramandako ekintzak direla eta, espero izatekoa da haiek gora egitea.

Agresiones 2011 - 2015




Arloka gertatu den igoera aztertuta, ikusten da batez ere oinarrizko osasun laguntzako hitzezko jakinarazpenek (2014an 33 eta 2015ean 73) eta Reina Sofía Ospitalean egindakoek (2014an, 4 eta 2015ean 5) egin dutela gora.

2016an jakinarazitako erasoak, 141 dira azaroaren 10ean; hori dela eta, jakinarazpenen joerari eusten bazaio, ez da probablea aurten 2015arekin alderatuta jakinarazpenek gora egitea.

4. Prestakuntzako eta informazioko jarduerak

Arlo honetan garatzen diren prebentzio-neurrien artean bereziki lehenesten dira osasun langileentzako prestakuntza eta informazioa. Arlo honetako prestakuntza- eta informazio-beharrizanei erantzuna emateko, honako jarduketak hauek egin dira edo egiten ari dira:

- Lan arriskuen prebentziorako eskuliburu bat argitaratzea, O-NOZeko langileei zuzendua, "Kantoko erasoak" izenburupean. Eskuliburu hori LAPZko eta beste zerbitzu batzuetako langileek osatutako lantalde batek egin zuen, guztiak ere arloko adituak.



Eskuliburua formatu digitalean zabaldu zitzaizen, posta elektronikoz, langile guztiei eta O-NOZeko burutzei. Gainera, etengabe eskura dago O-NOZen osasun-intranetean, deskargatu ahal dadin.

- Prestakuntza batez ere praktikoa, eta baliabi-deak eman nahi dituen, langileek jakin dezaten nola prebenitu edo, kasua bada, nola esku hartu indarkeria-gertakarietan. Bi modutakoa izan daiteke:

- o Prestakuntza irekia, urteko prestakuntza planetako bakoitzean programatzen dena eta oroko-

rrean arrisku horren aurrean egon daitezkeen O-NOZeko langile guztiei eskaintzen zaiena. Kanpoko erasoen erabilerari eta prebentzioari buruzko prestakuntza jasotzen du, bai eta gaixo erasokorrek lan egiteko jokabideko eta komunikazioko teknikei buruzkoa ere.

- o Prestakuntza murriztua, kolektibo jakin batzuei zuzendua, kanpoko indarkeriaren eraginaren eta prestakuntza premia zehatzen arabera (Larrialdiak, Buru Osasuna, etc.).

Jarraian, azken bost urteotan emandako ikastaroak aipatzen ditugu:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Autodefentsako eta gaixo erasokorrei eusteko teknikak	2	3	5	4	3	17
Gaixo zail edo erasokorrekin lan egiteko jokabideko eta komunikazioko teknikak.	0	1	1	2	6	10
Kanpoko indarkeria kasuetarako prebentzio neurriak	1	1	2	1	0	5
Autobabesa, haur eta gazteekiko krisi kasuetan esku hartzekotan	0	0	3	0	0	3
Gaixoei modu mekanikoan eusteko teknikak	3	0	3	0	9	15
						50

Zehazki, 2016an, bi autodefentsako eta gaixo erasokorrei eusteko bi ikastaro eman dira, bai eta jokabideko teknikei buruzko ikastaro bat ere, eskaintza orokorrean, Buru Osasuneko Zuzendaritzako langileentzako autodefentsako eta gaixo erasokorrei eusteko ikastaro bat, eta jokabideko teknikei buruzko bost ikastaro eta euspen mekanikoko teknikei buruzko bederatzik ikastaro Tuterako Reina Sofía Ospitaleko sendagileentzat, DUEntzat, larrialdietako laguntzaile eta zeladoreentzat eta Buru Osasuneko langileentzat. 2017an zehar, aurreikusita dago bi prestakuntza mota horiekin jarraitzea, ospitaleetako larrialdiei arreta berezia eskainita.

5. Jarduketa materialak

Arriskuei buruzko ebaluazioak egin ondoren edo Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinarazten zaizkien eraso azterketaren ondorioz, prebentzio neurriak proposatzen dira kanpoko erasoak saihesteko edo ahal den guztian gutxitzeko. Aurten, honako neurri hauek egiten ari dira edo egingen dira:

- Urrutiko agingailu baten bidez aktibatzen diren alarmak ezartzea, Nafarroako Ospitaleguneko

ko Ospitaleratze Psikiatrikoko I. eta II. unitateetan, eraso kasuetan abisua emateko.

- Bideragarritasun azterlan bat egitea, osasun etxe, buru osasuneko zentro eta larrialdietako zentro guztietan erasoetarako alarma-sistema bat jartzeko, mahai gaineko ordenagailua erabiliz, halako moduz non laster-tekla batez aktibatzen denean, alarma berehala jakinaraziko den eremuko lanpostu guztietara.

- Nafarroako Ospitalegunean segurtasuneko langile gehiago jartzea, egunean 24 orduz bi zain-tzaile egon daitezzen.

- Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan Foruzaingoaren presentzia handitzea ostiral eta larunbatetako arratsalde eta gauetan, bai eta gainerako egunetan ere, gorabehera gehien detektatzen diren orduetan.

- Berehalako hasiera izanen duen prebentzioko programa bat sustatzeko aurreikuspena. Programa honako honetan datza: herritarren segurtasunerako patruilaren presentzia aktiba egotea Tuterako Reina Sofía Ospitalearen barrutian, larrialdietako zerbitzuan toki ikusgarrian presente dagoela eta asteko egun guztietan ordutegitarte desberdinetako egoerari buruz interesatuz.

– Foruzaingoarekin koordinatzea Buru Osasuneko zentro bakoitzeko jarduketa protokoloak gaurkotzeko, larrialdiko abisurik egotekotan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak galdera egin du (9-16/PES-00371), Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruz.

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

(1) Salmentarako edo sustapenerako erreserban dagoen industria-lurzuaren azalera (erreserban baldin badago, lurzoru urbanizaezina edo landa-lurra), NASUVINSA enpresaren titulartasuneko, eta horien kokalekua, herriz herri.

Salgai dagoen industriarako azalera oraindik ere zehazteko dago, zeren eta oraindik ere ez baitago izapidetuta eskuratutako finkak zatitzea eta urbanizatzea baimentzen duen hirigintzako plangintza.

Hala eta guztiz ere, ondoren aipatzen dugu zein den eskuratutako azalera, udalerrien arabera eta lurzoruaren egungo sailkapenaren arabera banatua:

	Irurtzun	Arakil	Guztira
Hiri-lurraren azalera	106.853,00 m ²	0,00 m ²	106.853,00 m ²
Landa-lurraren azalera	0,00 m ²	39.285,76 m ²	39.285,76 m ²
Guztira	106.853,00 m²	39.285,76 m²	146.138,76 m²

(2) Aipatutako lurzoruaren unitate-balioa, sozietatearen onetsitako azken kontuen balantzean, honako egoera-mota hauen arabera:

- Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua
- Urbanizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua
- Eraiki gabeko lurzoru urbanizagarria
- Eraikitako lurzoru urbanizagarria

Nasuvinsaren balantzean jasotako balioa, zeina Nasuvinsak egin behar duen auditoriaren berrikuspenean behin betiko islatu behar dena, 2,5 milioi eurokoa da, horren barne direla ekitaldi berean eskuratutako aktibo guztiak.

Ezin da balio unitariorik lortu, eskatutako egoera moten araberrakorik, honako arrazoi hauengatik:

- lurzorua eskuratzean ez da zehazten lurzoruarekin batera eskuratutako higiezinaren balioa, zeren eta haien zati banaezina baitira;

- finken eta eraikinen zedarritze zehatz erreala ez dator bat ez katastroko azalerarekin, ez eta erregistroko azalerarekin ere;

- eraikinak ez dira guztiz aprobetxagarriak eraikin industrial edo hirugarren sektoreko bezala, eta bi udal barruti hauetan banatuta daude: Irurtzongo barrutia (hiri lurzoru gisa sailkatuta), eta Arakilgo barrutian (hiri urbanizaezin gisa sailkatuta);

- urbanizagarri gisa sailkatuta dagoen lurzorua- ren eta hiri lurzoru gisa sailkatuaren arteko alde funtzional bakarra zoladura da, zeren eta bi lurzoruetan lurpeko azpiegiturak baitaude, antzinako lantegiari eta Irurtzongo udalerruari berari zerbitzua ematen dietenak.

(3) Irurtzunen erositako azalera, operazioaren prezioa guztira, eta erosketatik heldu diren konpromisoak, ondorio ekonomikoak dituztenak; zehazki, erositako lurra berrurbanizatzearen kostua.

Irurtzunen eskuratutako azalera 106.853 m²-koa da, erregistroko datuen arabera.

Eragiketaren guztizko prezioa 2,5 milioi eurokoa izan da.

Nasuvinsak salerosketan ez du konpromiso berariazkorik hartu. Erosketan hartu diren eragin ekonomikoko konpromiso bakarrak dira Nasuvinsak bere gain hartuko duela finkaren gaineko erantzukizuna (mantentze-kostuak, zergak eta lehendik dauden zortasunei erantzutea), bai eta finka bat industrialde bihurtzeko hirigintza-izapideetatik heldutakoak ere, bihurtze hori gertatzekotan.

Berrurbanizatzearen kostua ez da erosketa-konpromisoan jaso. Hala eta guztiz ere, Nasuvinsak josten du eskuratutako finkak erabilera industrialetarako zatitzearekin lotutako berrurbanizatzearen

kostua 4,3 milioi euro gehi BEZa izanen dela, gutxi gorabehera.

(4) Irurtzuneke lurzoru hori hirugarrenei saltzetik heldu den balioaren zenbatespena edo konpromisoak.

Nasuvinsaren ustez, hirigintza-berrantolaketatik sortzen diren lurzatien salmentabaliua 6,9 milioi eurokoa izanen da, gutxi gorabehera (industrialako lurzatitan 90.000 m² lortu nahi dira, 60 €/m²-ko prezioan salduko direnak, eta espero da eraikuntza-egituraren 10.000 m² aprobetxatzea, gutxi gorabehera, eta horiek 150 €/m²-ko prezioan saltzea).

(5) Lurzoru horren salmentarako aurreikuspena, denboran.

Ez dago lurzoruaren salmentari buruzko denbora-aurreikuspen zehatzik.

Denborazko erreferentzia gisa, esan daiteke Nafarroan lurzoru industrialaren salmenta urtean 30.000 m²-koa izan dela batez beste 2012tik 2016ra bitartean.

Industrialdearen eskualdeko izaera eta haren kokapena kontuan hartuta (industrialdeak Sakana- ren erdiari eman diezaioke zerbitzu eta A-15 ardatzeko jarduera erakar dezake), jo dezakegu industrialdeak Nafarroako salmenten % 10 har ditzakeela –hau da, urtean 3.000 m²– eta 30 urtean okupa daitekeela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruz (9-16-/PES-00372). Hona hemen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren abuztuaren 2ko 233E/2016 Ebazpenak Olaztiko Cementos Portlanden instalazioaren ingurumen baimen integratua aldatu du.

Legearen zioen azalpenean, honako hau aipatzen da:

Instalazio horrek ingurumen baimen integratua du,

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren ekainaren 6ko 302/2007 Foru Aginduaren bidez emandakoa.

Ingurumen baimen integratua Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 22ko 218E/2014 Ebazpenaren bidez eguneratu zen, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak azaroaren 24an emisio industrialei buruz onetsitako 2010/75/EB Zuzentaraura egokitzeko xedearekin.

Halaber, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 855/2011 Ebazpenaren bidez,

biomasa begetaleko hondakinen balorazio energetikorako proiektuaren exekuziorako ingurumen baimen integratua aldatu zen.

Eta Nafarroako Gobernuaren 2013ko urtarrilaren 16ko Erabakiaren bitartez, "Olaztiko zementu fabrika erregai alternatiboen balorazioa" udalez gaidiko proiektu sektoriala onetsi zen, eta instalazioari ingurumen baimen integratu berria eman zitzaion.

Azkenik, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren abuztuaren 22ko 335E/2013 Ebazpenaren bitartez, magnesio oxidoa eta dolomia sintetizatua ekoizteko ingurumen baimen integratua aldatu zen.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 38E/2015 Ebazpenaren bidez, iraungitaz jo da Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 855/2011 Ebazpenaren bidez baimendutako aldaketa.

Nafarroako Gobernuak, 2015eko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Cementos Portland Valderrivas SAn "Olaztiko zementu fabrika erregai alternatiboen balorizazioa egitea" izeneko proiekturako emandako Ingurumen baimen integratua iraungitaz deklaratu du.

Eta, azkenik, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 38E/2015 Ebazpenaren bidez, iraungitaz jo da Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren abuztuaren 22ko 335/2013 Ebazpenaren bidez baimendutako aldaketa.

Egintza administratibo asko gertatu direnez bata bestearen atzetik, horrek instalazioaren funtzionamendu baldintzetan eragina duela iritzita, beharrezkotzat jotzen da Ingurumen baimen integratua eguneratzea.

Eta ebazpen-zatian honako hau aipatzen da:

EBATZI DUT:

LEHENDABIZIKOA. Olaztiko udal mugapean porlana fabrikatzen duen instalazio baten Ingurumen baimen integratua eguneratzea. Hortaz, instalazioak eta jarduerak berak instalazioari Ingurumen baimen integratua emateko eta aldatzeko lehendik tramitatutako administrazio espedientee-

tan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horiez gainera, ebazpen honen eranskinetan adierazitako baldintzak eta neurriak. Instalazioaren titularrak Cementos Portland Valderrivas SA da.

...

HIRUGARRENA. Hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile izateko baimena ematea instalazioari, eta Nafarroako Foru Komunitateko Hondakinen Ekoizpenaren eta Kudeaketaren Erregistroan inskribatzea, 15G04189016232015 erregistro zenbakiarekin.

Kudeatzen ahal dituen hondakinak eta hondakin horiek tratatzeko gauzatzen ahal dituen eragiketak ebazpen honen III. eranskinean ageri dira. Halaber, titularrak hondakinen kudeaketan izandako edozein aldaketa jakinarazi beharko dio Nafarroako Gobernuko Ingurumen Kalitatearen eta Aldaketa Klimatikoaren Zerbitzuari.

Baimenak zortzi urteko indarraldia izanen du, eta automatikoki berrituko da beste horrenbeste urteko aldietarako, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 27.8 artikulua aplikatuz (Hondakinak tratatzeko eragiketen baimena).

Sozietatearen helbidea dagoen autonomia erki-degoan ingurumen arloan eskumena duen organoak III. eranskinean adierazitako tratamenduak egiteko baimendutako entitate batek ustiatuko du instalazioa, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

I. eranskinetan, produkzio-prozesuaren xehetasunak ematen dira, eta zehazki, honako hauek:

– Beroa erregailu nagusi batek sortzen du, labeko materialaren irteerako muturrean. Erregai solido eta likidoetarako, petrolio-kokea erabiltzen da erregai gisa, eta fuel-olioa, berriz, labeak abian jartzeko.

– Labeak elikatzeke, aurrez petrolio-kokea ikatz errota banatan ehotzen da, non, aldi berean, lehortu egiten baita, hozkailutik ateratzen den haize beroko korrante bat pasaraziz. Errotetako airearen kanporatzea mahuka-iragazkien bitartez egiten da, non ehotze-lanean sortutako partikulak atxikitzen baitira.

Sortutako eta kudeatutako hondakinei buruzko III. eranskinean, jardueran sortu diren eta hartatik heldu diren hondakinak jasotzen dira: laborategi-koak, deposituen garbiketakoak, produkzio-prozesukoak edo zerbitzu orokorretakoak. Eta aipatzen da horietako bakoitzari zein kudeaketa-eragiketa erabiltzen den, Europako Hondakinen Zerrendatik heldu diren eta hartan erabiltzen diren kodeen arabera. Hartara, esleitutako –eta baimendutako– eragiketa bakarra birziklatzea da (R4), enpresako instalazioek hondakin horiek materialki balioztatzeke; beste ezertarako ez.

ONDORIOAK:

Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau aipa daiteke:

Cementos Portland enpresak Olaztin egun duen ingurumen baimen integratu indardunak EZ du baimenik ematen hondakinak erregai gisa erabiltzeko.

Produkzio prozesuan erabiltzen diren erregai bakarrak petrolio-kokea eta fuel-olioa dira, azken hori labeak abian jartzerakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00373 zenbakiko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Etxez etxeko hezkuntza-arretarako laguntzen deialdia. 2016-17 ikasturteari dagokiona, izapidetzen ari dela eta hemendik gutxira argitaratuko dela. Nolanahi ere, suspertzen ari diren ikasleen balorazioak eta jarraipena normaltasunez egiten ari dira, halako moduz non ikasle horiei behar diren laguntzak ematen ari zaizkien, eta deialdia argitaratzen diren unean familiei kasuko laguntzak emanen zaizkie.

Etxez etxeko arreta zerbitzua 2016ko azaroaren 16an:

Egindako balorazioak	Eskolak jada etxean ematen dituzten irakasleak	Gauzatzeko dago, baina izapideak hasita
15	9	6

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00374 zenbakiko galdera

egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galderaren bidez jakin nahi duzu zer arrazoi egon den aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak gehiegi atzeratzeko edo abian ez jartzeko. Horri buruz esan beharra dago aniztasunarekiko arretako neurriak normaltasunez antolatzen eta garatzen joan direla. Halere, 2016-2017 ikasturteko deialdi batzuek nolabaiteko atzerapena izan dute, eta ahal den urgentzia handienaz ebazten ari dira.

Bestetik, une hauetan 2015-2016 ikasturteko deialdi guztiak jada ebazita daude edo berehala ebazteko fasean daude.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin jaunak galdera egin du (9-16/PES 375), Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xeda-tuaren babesean. Hona Garapen Eko-

nomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

Polizia-erregistroa duten istripuen estatistika (guztiak ere nolabaiteko garrantzia dute, eta horien artean sartzen dira biktimak eragin dituztenak), 2006ko urtarrila-ren 1etik aurrerakoa, erantsitako dokumentuan ageri dena da.

36+900; 37+000 kilometro puntuari esleitzeak (bertan dago galderaren xede den puntuaren inguruan arazoak sortzen dituen bidegurutzea) soilik hondo horiz nabarmendutakoak dira.

Ikus daitekeen bezala, puntu horretan 6 istripu izan dira ia 11 urtetan.

Horietako bakar batek sortu ditu biktimak, 5 zauritu larri eta bi arin, 2007ko apiri-lean.

Errepideak Zaintzeko Zerbitzuko Bide Seguratasunaren Atalean trafikoari eta istripuei buruz egiten diren azterlanetan, bidegurutze hori ez da sekula azaldu istripu ugariko tarte gisa, tarte arris-

kugarri gisa edo hobekuntza-tarte handiko tarte gisa; hori dela eta, jarduketan esparru honetan, zerbitzu honetatik ez da inongo hobe-kuntza-proposamen egin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-

lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

ISTRIPUAREN DATA_ORDUA	ERREPIDEA	KM	HM	SE	BIDEGURUTZEA	BIDEGURUTZE MOTA	ISTRIPU MOTA	M	HG	HL	IBILGAILU MOTA
2014/08/01, 21:25	NA-150	36	3	A	-	-	Errepidetik irtetea eskuineko aldetik. Beste talka mota bat.	0	0	0	1
2014/08/11, 10:25	NA-150	36	3	S	-	-	Ibilgailuen talka errepidean topatutako oztopo batekin: Bestelako objektu edo materiala	0	0	0	1
2015/08/14, 09:50	NA-150	36	9	S	-	-	Abian doazen ibilgailuen talka: Aurreko aldekoa eta alde batekoa	0	0	0	2
2016/01/07, 15:30	NA-150	36	9	S	Errepidea	T edo Y motakoak	Abian doazen ibilgailuen talka: Aurreko aldekoa eta alde batekoa	0	0	0	2
2006/12/15, 08:30	NA-150	37	0	A	-	-	Errepidetik irtetea eskuineko aldetik	0	0	0	2
2007/04/20, 14:45	NA-150	37	0	S	-	-	Abian doazen ibilgailuen talka: Aurreko aldekoa	0	5	2	2
2010/03/05, 15:00	NA-150	37	0	D	-	-	Abian doazen ibilgailuen talka: Anitza edo ilaran	0	0	0	3
2011/01/11, 11:20	NA-150	37	0	A	-	-	Errepidetik irtetea eskuineko aldetik	0	0	0	1
2010/10/25, 18:45	NA-150	37	5	D	-	-	Harrapaketa: Animalia solteak	0	0	0	1



PK 36+900

Galdera, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruz (9-16/PES-00376). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Behin zure galderari erantzuteko departamentuek eman beharreko informazioa bilduta, esan dezakegu Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak, NKGIren bitartez, Basque Ultra Trail Series zirkuituko antolatzaileei berretsi ziela ezin zitzaiola proba horri zuzeneko laguntzarik eman eta informatu zitzaaien aurkez zitezkeen deialdiari buruz. Bestalde, Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagokionez, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak alde zuretik bilera bat egin zuen, non probako antolatzaileek babesleztaren aukera aipatu baitzuten; halako aukerarik, ordea, ez zen ez adostu, ez itxi.

Baimenei dagokionez, ez dugu inongo eskaerarik jaso, ez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuan, ez eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuan ere, erantsi dugun Barneko zuzendari nagusiaren txostenean agerituen bezala.

Azkenik, lasterketari eman lekiokien laguntzari dagokionez, dela finantzarioa, dela azpiegiturena edo beste edozein motatakoa, bere garaian aurkeztuko dira aurkez daitezkeen eskaerak, beste edozein probatan egiten den bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Gaia: 9-16/PES-00376. Basque Ultra Trail Series zirkuitua.

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari David Anaut Peña jaunak galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Basque Ultra Trail Series zirkuituak antolatzen duen lasterketa bati ematen dion laguntzari buruz; izan ere, etapa bat Nafarroan barna da, maiztaren 5etik 7ra, Gasteiz eta Iruña artean, eta beste bat, berriz, abuztuaren 4tik 6ra, Iruña eta Donostia artean; hori guztia, ustez, 2017an. Erantzuteko honako hau eman behar dizut ezagutzera:

1. Galdera Barneko Zuzendaritza Nagusian jaso ondoren, Foruzaingoari eskatu genion informazioa eman ziezagun iragarritako lasterketa dela-eta aurkeztutako balizko komunikazio edo eskaerei buruz. Erantzuna ezezkoa izan da. Foruzaingoak ez du inongo eskaerarik, ez eta komunikaziorik ere, aipatutako etapei buruz.

2. Era berean, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuari egin genion galdera, haren menpekoak baitira Joko eta Ikuskizunen Atala, Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Atala, Ibilgailu Parkearen Atala eta Segurtasuna Koordinatzeko atala, zerbitzu horrek Nafarroan aurreikusitako etapei buruzko eskaera edo komunikaziorik jaso bazuen ere. Erantzuna, orduan ere, ezezkoa izan zen.

Horrenbestez, jakitera ematen dizut Barneko Zuzendaritza Nagusiak ez duela ez komunikaziorik, ez eskaerarik jaso Basque Ultra Trail zirkuituak antolatutako lasterketari buruz.

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an.

Barneko zuzendari nagusia: Agustín Gastaminza Oiz

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00377 zenbakiko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Zein izan dira Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideak?

– 2014ko abenduaren 10ean, Nafarroako Gobernuaren Erabakiz onetsi zen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren testua; horren bidez artikulatzen dira Ministerioak ematen duen finantzaketa eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa, Oinarrizko Lanbide Heziketa ezartzeko, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako hautapenaren aurreratzerako eta ibilbide berriak ezartzeko; neurri horiek Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoan sartutakoak dira.

– Hitzarmen hori bi aldeetan artean –Hezkuntzako, Kulturako eta Kiroleko ministroa eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria– gauzatu zen 2014ko abenduaren 17an.

Hartan jasotzen da hitzarmen horren xede diren jarduketak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak finantzatuko dituela, 2014ko ekainaren 30ean Hezkuntzako Konferentzia Sektorialak onetsitako egutegiaren eta banaketa-irizpideei jarraituz, eta Europako Gizarte Funtsak batera finantzatuko dituela Enpleguko, Prestakuntzako eta Hezkuntzako Erregio Anitzeko Programa Ope-

ratiboaren 3. Ardatzaren kargura, % 50eko tasaren arabera.

2014/2015 ikasturtean, Oinarrizko Lanbide Heziketako (OLH) 1. maila jaso zen. 2015/2016 ikasturtean, OLHko 1. eta 2. mailak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. maila. Aurtent, 2016/2017 ikasturtean, Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. eta 2. mailak eta DBHko 3. eta 4. mailak.

Hitzarmen hori sinatu zenetik, behar ziren izapideak hasi ziren Departamentuan laguntza horiek kudeatzeko:

– Onetsi beharreko kudeaketa-eskuliburuak landu.

– Baremoak landu.

– Ikastetxeak edo operazioak hautatzeko irizpideak landu eta haiek hautatu.

– Hautatutako ikastetxeekin informazio-bilerak egiteko deia egin.

– Gutunak igorri hautatutako ikasketeei, behar den dokumentazioa gehituta.

– Informazio-kartelak landu. Publizitatea kontrolatu.

– Ikastetxeek plantatutako zalantzak ebatzi.

– Kanpoko auditoriei erantzun.

– Ikastetxeek igorritako dokumentazioa jaso, analizatu eta artxibatu

– Behin ikasturtea amaituta, HKKMri aurkeztu beharreko operazioen justifikazio ekonomikoa landu eta aurkeztu

– Exekuzio-adierazleen eta emaitzen bitartez justifikazio tekniko eman

Bestetik galdetu duzu zein jarduketa egin diren Hezkuntza Departamentuan funts horren kontura. Hauxe da erantzuna:

2014an, 2015ean eta 2016an, programako kasuko diru-sarrerak kontabilizatu dira Hezkuntza Departamentuaren diru-sarreraren aurrekontuko kontu-sailetan.

Funts horiek lagungarri gertatu dira Hezkuntza Departamentuaren langile-gastuen aurrekontua finantzatzeko.

Galdetu duzu irakasleei eskatu ote zaien funts horien bidez finantzatutako jardueretan parte hartu izana sinatzeko. Hauxe da erantzuna:

Programa honen kudeaketari buruzko justifikazio ekonomikoaren fasean, Europako Gizarte Funtsak behartzen du egiazki izan diren irakaskuntza-aldien jarraipen bat egitera, gainera haiek eman izana jasota utziz.

Jarraipen hori egiten da emandako saio kopuruari buruzko ziurtagiri batekin, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak izenpetua, HKKMk emandako ereduari jarraituz. Ziurtagiri horretan jasotako informazioak euskarri objektibo bat eduki beharko du, irakaskuntza-aldiak egiaztatuko dituen. Gaur arte, Europako Gizarte Funtsa administratzen duen unitateak baliozkotutako euskarri fidagarria irakasleen sinadura izan da, egiazki emandako saio bakoitzaren irakaskuntza-aldia egiaztatzen duena.

Ikastetxeek eskatuta, Hezkuntza Departamentuak eskatu du sinaduren bitartezko kontrol-sistema hori kendu eta ikastetxeek berek EDUCA programaren bitartez eman dezaketen informazioa erabiltzea. HKKMk proposamen hori onetsi du, 2016/2017 ikasturtetik aurrera aplikatzen dadin. Behar den informazioa sartu eta atera ahal izateko, programa hori egokitu egin behar izan da.

Galdetu duzu ea informazioa eman zitzaien irakasleei Europako Gizarte Funtsaren bidez finantzatutako jardueretan parte hartzeari buruz

Hezkuntza Departamentuak, ikasturte bakoitzaren hasieran, informazio-bilerak egin ditu parte hartzen duten ikastetxeetako zuzendaritza-

taldeekin. Halaber, hautatutako ikastetxe guztiei informazio-gutun bat igorri zaie, laguntzak kudeatzeko behar diren jarraibideekin eta informazioarekin. Gutun horretan jasota dago hautatutako irakaskuntza-aldien baterako finantzaketari buruz ukitutako bai ikasleei, bai irakasleei informatzeko beharra, eta horren publizitatea egiteko beharra.

Europako Gizarte Funtsaren betekizunetako bat da berak batera finantzatutako jarduketari publizitatea eman eta hori jasota uztea. Hori dela eta, hautatutako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ukitutako irakasleei eta ikasleei informazioa eman behar diete, eta modu materialean jasota utzi behar dute eragiketan hautatu diren irakaskuntza-aldien baterako finantzaketa. Horretarako, sinadurak biltzeko balizko eredu bat igorri zen; eredu hori bete ondoren, ikastetxearen zuzendaritzaren zaintzapean geldituko litzateke.

Lizarralde BHLra egindako bisitan Hezkuntzako Batzordeari adierazi zioten arabera, Europako funts horien bidez finantzatutako jardueretan parte hartu behar omen zuten irakasleen informazio-eskaerari ez zitzaion erantzun. Zergatik?

Lizarralde BHLari igorri zitzaion informazioa parte hartu duten ikastetxe guztiei igorritako bera izan da. Gainera, telefonoz zenbait zalantza eta gai argitu dira. Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuan ez dago jasota aipatutako ikastetxeak informazio gehigarririk eskatu duenik.

Iruñean, 2016ko azaroaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

